



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2008ko otsailaren 21a, osteguna.

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASIERA: 19:10

BUKAERA: 19:35

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Martxiel Genoba Solaberrietak (EAJ) ezin etorria adierazi du, herritik kanpo dagoelako.

AZTERGAI ZERRENDAA

- 1.- Berrestea, egoki bada, udalen elkarteak, Gipuzkoa Donostia Kutxa kreditu erakundeko kontseilariak aukeratzeko.



- 2.- Onartzea, egoki bada, EAE-ANV udal taldeak eta EAJko, EAKo eta Ezker Batua-Berdeak/Aralar udal taldeek aurkeztutako mozioak, EHAK eta EAE-ANV alderdi politikoen jarduerak eteteari buruz.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Ezker Batua-Berdeak/Aralar udal taldeak aurkeztutako mozioa, Beñat Karreraren atxiloketari buruz.

1.- BERRESTEA, EGOKI BADA, UDALEN ELKARTEA, GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA KREDITU ERAKUNDEKO KONTSEILARIAK AUKERATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalbatzarrak 2008ko urtarrilaren 29an egindako ohiko bilkuran onartu zuen alkatetzaren proposamena udal elkarte osatzeko —Orio, Ordizia, Urnieta, Zumaia eta Segurako udalen artean—, Gipuzkoako Donostia Kutxa kreditu erakundeko kontseilariak aukeratzeko

Udalbatzarrak Kutxako Hauteskunde Batzordeko presidentearen idatziaren berri jakiten du. Idatzi horretan adierazten du Hauteskunde Batzordeak ez duela Zumaiako Udalaren aldetik elkartearekin bat egin izanaren jakinarazpenik jaso eta, hori dela eta, Kutxako Hauteskunde Batzordeak, otsailaren 4an egindako bilkuran, epe bat zabaltzea erabaki duela, otsailaren 22ra arte, egun hori bera barne, eta epe horren barruan, elkarte osatzeko erabakia hartu duten udalek berretsi egin beharko dutela, udalbatzarraren erabaki baten bitartez, elkartzeko asmoa, nahiz eta elkarte horretan ez egon Zumaiako Udala. Udal guztiek ez badute epe horren barruan erabakia berresten, indarrik gabe geratuko da elkarte hauteskunde prozesuan.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

BERRESTEA Udalbatzarrak 2008ko urtarrilaren 29an egindako ohiko bilkuran onartutako alkatetzaren proposamena udal elkarte osatzeko —Orio, Ordizia, Urnieta, Zumaia eta Segurako udalen artean—, Gipuzkoako Donostia Kutxa kreditu erakundeko kontseilariak aukeratzeko, nahiz eta elkartean Zumaiako Udalak ez parte hartu.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAE-ANV UDAL TALDEAK ETA EAJ, EA ETA EZKER BATUA-BERDEAK/ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOAK, EHAK ETA EAE-ANV ALDERDI POLITIKOEN JARDUERAK ETETEARI BURUZ.

Idazkariak EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurtzen du. Mozioa EHAK eta EAE-ANV alderdi politikoen jarduerak eteteari buruzkoa da eta, hitzez hitz, honela dio:

EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakita Espainiar estatuak berriro erasotzen du Euskal Herria. Alderdi Poltikoen legea erabiltzen dute herri honen eskubideak jazartzeko, egitasmu politikoak legez kanpo uzteko, independentziari ateak ixteko. Espainiar Konstituzioak herri honen geroari itxi nahi dizkio ateak, gatazkaren konponbidea ukatu eta herri honen eskubideak urratzen jarraitu. Hori da, berriro ere, PSOEko gobernuak herri honi eskaintzen diona: errepresioa eta konstituzioa.

Eraso honek ageriago uzten du pairatzen dugun demokrazia eza. Espainiar legedia eta justizia deitzen duten hori euskal herritarren eskubideak ukatu eta urratzeko besterik ez du balio. Espainiar Konstituzioaren eskutik ez dago euskal herritar izaterik, ez dago eskubiderik, ez dago Euskal Herria.

Une erabakiorra bizi dugu, gure herriaren borondatea ukatzen jarraituko duen Konstituzioari atxiki edo Euskal Herriari erabakitzeko eskubidea aitortu eta gatazkari behin betiko konponbidea eman. Alderdi Politikoen Legearen aplikazioarekin bat egin edo euskal herritarren borondateari bide eman. Hori da jokoan dagoena, eta horretara dator azken eraso hau. Konponbidearen alde borrokatzen duen independentismoari eraso egiten zaio herri honi iruzur berria egin nahi zaiolako. Une hauetan PSOEk eta PNVk iruzurra prestatzen ari dira, herri honen eskubideak ukatzen dituen markoa erreformatu nahi dute. Independentziari ateak itxi, gatazkari konponbidea ukatu eta alderdi interesak lehenetsiz markoa iraunarazi nahi dute.

Ez gaude iruzurrak onartzeko prest. Herriak konponbidea eskatzen du, gure etorkizuna libreki erabaki nahi dugu. Ukazioa, inposizioa, errepresioa, Alderdi Politikoen Legea, Konstituzioa. Guztien gainerik herriari hitza ematea, herriak aukera politiko guztien artean, independentzia barne, erabaki dezan, horretan datza nozitzen dugun gatazkaren konponbidea. Marko berri bat behar du gure herriak, marko demokratiko bat Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarentzako.

Aipatu guztiari jarraituz honako mozioa aurkezten dugu, udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:

1.- Udal honek oso larritzat jotzen du espainiar estatuak EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakitzea. Erabaki honek Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri



4.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek udal jardueran era normalizatu batetan parte hartzeko aukera guztiak izango dutela bermatuko da, beste Udal Talde eta hautetsiek izango dituzten berdina, hain zuzen ere.

5.- EAE-ANV Udal Taldeko hautetsiek udalaren ordezkari gisa bestelako erakundeetan dituzten ardurak eta karguak gorde eta era normalizatu batetan bete ahal izango dituztela bermatuko da.

6.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek beraien lana garatzeko dituzten udal tresna eta baliabide zein diru ekarpen guztiak bermatuko zaizkie.

7.- Erabaki honen ondorioz EAE-ANV Udal Taldeak edo hautetsiek jaso dezaketen eskubide urraketa edota ondorioen aurrean Udalak bere babes eta laguntza osoa eskainiko du.

Idazkariak, segidan, EAJ, EA eta Ezker Batua-Berdeak/Aralar udal taldeek aurkeztu duten mozio alternatiboa irakurtzen du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

Hona, EAJ-PNVko, EAKo eta Ezker Batua-Aralarreko taldeek, erakunde politikoen lege kanporaketak gauzatu diren honetan, Udal honi aurkezten dioten mozioa.

1. *Bizi dugun etengabeko eskubideen zapalkuntza ez zaio, inolaz ere, gure herriak behar eta desio duen soluzio bilaketari lagungarri. Soluzioa baitator, batetik, eskubide ororen zapalkuntza bazterretik eta bestetik, gure herriak bizi duen gatazka politikoa soluzio bidean jarriko duen akordio politikoa bilaketatik, Herri honi berezkoa zaion erabakitze eskubidea oinarri duela.*

2. *Erakunde politikoak legez kanpo uzteko prozesuak funtsezko eskubideei eragiten die, zuzen-zuzenean: askatasun ideologikoa, adierazpen askatasuna, elkartzeko askatasuna eta herritarren partehartzea. Gure Herriko elkarbizitza ere eragiten dio, eta gure gizarteak desio duen normalizazio politikotik urruntzen gaitu oso.*

3. *Indar eta adierazpen politiko guztiek dute eskubidea Euskal Herriko erakunde guztietako bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko, guztiek baldintza berdinetan, bakoitzari hautesleek eskaini dioten ordezkariaren arabera. Eta berriro ere adierazi nahi dugu, azken hauteskundeetan lortutako ordezkari horri zor zaion guztizko errespetuz egingo dugula lan.*

4. *Pertsona ororen eskubide guztien aldeko egiazko lanak, eta Herri honi bere etorkizuna askatasun osoz eta demokratikoki erabakitze berezkoa zaion eskubidearen aldeko lanak, -bataren eta bestearen aldeko lanak- eramango gaitu bakea eta gatazka politikoa soluzio bidera.*



Eugenio Cotado zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du, alde batetik, ez zaiola ondo iruditzen Bozeramaileen Batzordea jartzea berari lan kontuengatik gaizki datorkion orduan eta, beraz, honako gonbita egiten die batzorde hori osatzen dutenei: hurrengoan, eta ordua aldatzen ez den bitartean, bilkuratik altxa eta alde egitea; bestalde, adierazten du idazkariak irakurri duen EAE-ANVren mozioa ez dela berari udalbatzarraren deialdiarekin batera pasa zaion mozio bera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa, EHAK eta EAE-ANV alderdi politikoen jarduerak eteteari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Bestalde, udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Garcia (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA EAJ-PNV, EA eta Ezker Batua-Berdeak/Aralar udal taldeek aurkeztutako mozioa, EHAK eta EAE-ANV alderdi politikoen jarduerak eteteari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EZKER BATUA-BERDEAK/ARALAR UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, BEÑAT KARRERAREN ATXILOKETARI BURUZ.

Idazkariak Ezker Batua-Berdeak/Aralar eta EAE-ANV udal taldeek aurkeztutako mozioa irakurtzen du. Mozioa Beñat Karreraren atxiloketari buruzkoa da eta, hitzez hitz, honela dio:

BEÑAT KARRERAREN ATXILOKETA

Estatu espainolak martxan jarri du EHAK eta EAE-ANV alderdiak legez kanpo uzteko prozesua, Alderdiaren Legea aplikaturik, bi partiduen jarduera politikoa eten eta hauteskundeetara aurkezteko aukerarik gabe utzi ditu.

Salbuespen egoera hori salatzeko asmoz, zenbait hautetsi independentistak manifestazio deialdia egin zuten otsailaren 10erako Bilbon. Espainiako Auzitegi



Nazionalako epaileak Ertzaintzari eta Herrizaingo Sailari agindu zien manifestazioa egin ez zedin, beharrezko neurriak hartzeko.

Antolatuta zegoen bezala, igandean, 12:00etan, Euskal Herriko alde guztietatik etorritako milaka lagun elkartu ziren Casilla plazaren inguruetan. Hautetsi independentistek "Euskal Herriaren eskubideen alde. Salbuespen egoerari STOP" lelopean deitutako manifestazioa Ertzaintzak geldiarazi zuenean hasi ziren istiluak Bilbon.

Manifestatzera joan zirenek era baketsuan adierazi nahi zuten beren aldarria, eserialdia eginez. Ertzaintzaren jarrera neurri gabekoa izan zen eta istiluak eragin zituen.

Bortizkeriaren ondorioz, 4 gazte atxilotuak (horien artean Orioko Beñat Karrera) eta hainbat zauritu izan ziren. Atxilotuek ospitaletik pasa behar izan zuten ertzaintzak emandako kolpeengatik. Gaua kalabazotan pasa zuten eta, epailearen aurrean izan ondoren, libre geratu ziren, "desordena publikoa eragin izana" egotzirik, euren aurkako bide judizialek aurrera jarraituko dutelarik.

Horren aurrean, Orioko Udalak zera adierazi nahi du:

1. Manifestatzeko eskubidea denon eskubidea da eta adierazpen askatasuna estatu demokratiko batek bermatu egin beharko luke. Gauden "salbuespen egoera" honetatik atera beharra dago, eta ideia politiko guztiek parte hartzeko aukera izan behar dute.

2. Orioko Udalak Beñat Karrerari eta bere sendiari elkartasuna adierazi nahi dio eta behar duen laguntza juridikoa eskaini.

Orioko Udalak salatu nahi du atxiloteten kontra igande arratsaldean egindako kontzentrazioan, nahiz eta inongo istiluri ez izan, ertzaintzak erakutsi zuen jarrera gogorra.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV) eta Iturain (EB-B/Aralar), guztira **LAU ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), García (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Ezker Batua-Berdeak/Aralar eta EAE-ANV udal talde politikoek aurkeztutako mozioa, Beñat Karreraren atxilotetari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura. 2008/02/21

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,